

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Gure produktua aurrera eramateko, beharrezkoak diren baliabideak lortzeko eta bermatzeko, enpresa desberdinekin aliantzak sortuko ditugu. Era berean, gure produktua produzitzen hasteko eta hau etxeetara iristeko hainbat elkarteentz zerbitzuak eta laguntzak beharko ditugu.

Alde batetik, produktua garatzen hasteko lokal bat beharko dugu, eta hori lortzeko, UGGASA-rekin harremanetan jarriko gara. Enpresa honen laguntzarekin, lokala Urretxu-Zumarragan irekitzea lortuko genuke eta hileroko 30€-ren truke behar ditugun gastuak ordainduko genituzke, esaterako; ura, gasa, argindarra, interneta eta elektrizitatea. Era berean, udaletxera joan eta bertan baimena eskatu beharko dugu lokala irekitzeko.



Dirua guk jarriko dugun arren, gure proiektua aurrera eraman ahal izateko, bankuari diru laguntza bat eskatu beharko diogu. Diru laguntza hori lortzeko, banku bakoitzak eskaintzen dizkigun interesak ikusiko ditugu, eta horretan oinarrituz gehien gustatzen zaiguna aukeratuko dugu.

Bestalde, produktuak lortzeko **Accenture** enpresarekin aliantza sortu beharko dugu. Euskal Herrian nahiko ezaguna da, bertan dagoen txartel enpresa nahiko handi bat delako. Eta gure ustez, beraiek laguntza ona eskaini ahalko digute. Eginda dauden txartelak zuzentzeaz eta gaizki daudenak konpontzeaz arduratuko dira; hau da, gure produktua hobetzen lagunduko digute.

The Accenture logo features a stylized chevron symbol above the word "accenture" in a bold, black, sans-serif font.

Gure produktua Euskal Herrian ahalik eta gehien zabaltzeko eta ahalik eta bezero gehien erakartzeko, garrantzitsua da publizitatea egitea, beraz, euskal komunikabideekin harremanetan jarriko gara, gure produktuaren iragarkiak jartzeko, adibidez; Eitb, Gaztea...



Patenteari dagokionez, oso garrantzitsua izango da gure ideia behar bezala patentatuta edukitzea, horrela, gobernuarekin eta beste enpresekin arazoak sahiestuko ditugu eta gure enpresa babestuta egongo da. Horretarako OEPM-ra joan eta bertan egingo dugu.

Bukatzeko, correos-en zerbitzuak erabiliko ditugu, webgunetik, aplikaziotik eta sare sozialetatik egiten dizkiguten eskaerak bidaltzeko eta bezeroengana iristeko. Horrela bidalketa prozesua erraztuko digute.



Ezinbestekoa izango da elkarte hauekin harremanetan jartzea gure proiektua aurrera eramateko.